

## ➤ **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Gure enpresak bezeroekin harreman hurbila mantenduko du. Konfiantza eta profesionaltasunean oinarritutako harremana bultzatzeko helburua dugu, horrela haien fideltasuna lortuko dugu. Horretan oinarritzen bagara bezeroarekiko edukiko dugun harremana automatizatua izango da erosterako orduan baina entrega egiterako orduan aurrez aurre egingo dugu, hau da, gure enpresak bisitak egingo ditu paperdendetara gure produktuak onak direla erakusteko eta haien berri emateko, ondorioz denden fideltasuna bermatuko dugu.

Hori kontuan hartuta gure enpresa eskaintzen duen zerbitzua nahiz eta autozerbitzua izan laguntza pertsonalizatua izango du, dendetara joango garelako produktuak erakustera eta dendariak ezagutzera haien beharrak hobeto asetzeko zer egin ahal dugun jakiteko.

Gainera, dendetara joaten bagara dendariak gure produktua hobetzeko ideak emango dizkigute eta horrek gure diru sarrerak handituko ditu. Gure enpresak izango duen gauzarik bereziena bezero bakoitzari tratu indibiduala emango diogu, beraien nahiak eta arazoak konpontzeko helburuarekin.

Beste aldetik, esan dugun moduan salmenta zuzena egingo dugu online, gure bezeroak diren familiak eta gazteekin harreman zuzena edukitzeko eta haien kontseiluak hartzeko. Kontseilu horiekin gure produktua hobetu dugu eta beste bezero mota batzuei ailegatuko gara.



